

## Funtzioak

---

Euskadiko Filategia 1978an eratu zen, honako helburuekin: zinema oro har eta euskal zinema bereziki aztertzeko interesgarriak diren filmak edo ikus-entzunezkoak ikertu, berreskuratu, artxibatu, gorde eta erakustea, baita kulturaren edota historiaren ikuspuntutik gordetzea komeni den agiriak eta material teknikoa bildu eta zaintzea ere.

### Ikerketa

Izena, kokapena eta jarduera-eremua kontuan hartuta, euskal zinema du helburu nagusi; hau da, Euskal Herriarekin zerikusia duten dokumentalak, fikzioa eta historiako zein zinemako agiriak.

### Berreskuratzea

Funtsezkoa da profesionalek edota amateurrek egindako materiala berreskuratzea, ondoren haiek gorde, identifikatu eta edukia edonork eskuratu ahal izateko. Beharbada, dokumentu argitaragabeen arloan, zinemagile amateurrek eta partikularrek konturatu egin behar dute oso garrantzitsua dela dokumentu horiek zaintzea, egungo eta etorkizuneko belaunaldiek ezagutu ditzaten.

### Artxibatzea eta gordetzea

Fondoak artxibatzeke eta gordetzeko, arlo horretan espezializatutako nazioarteko erakundeek erabakitako arauak jarraitzen dira. Materialak gordetzeko, aintzat hartu behar dira material horietako bakoitzaren berariazko ezaugarriak.

### Hedapena

Filategiak aldian aldiko proiektzioen bidez egiten du lan hori. Horrez gain, euskal zinemari, gure zinemagileei eta, oro har, zinemari buruzko ikerketak argitaratzen ditu. Zerbitzuak ematea ere gure jardueraren alderdi garrantzitsua da. Gure instalazioetan, Filategiko eta liburutegiko fondoak kontsulta daitezke, kopiak mailegatzeko, irudiak uzten, bisita gidatuak egiten...